

pil-pilean

**“Herrixa danon artian etara bihar
dogu aurrera, politikari eta herritar”**

Jose Luis Arizaga “Txipi”

SORALUZeko ALKATEA



GURUTZE ARIZNABARRETA



ELENE ALBERDI

EMENDAU DIRA ARGIXAK

Emendau dira 2007ko argixak, LN, urte berri oon ! Nere urteko azken orrixan dedikatorixa berezi bat idatzi dot, eskerrak emonaz nere onduan egon zarien guztiori. Keinu txiki bat neri dedikatu dostazuen guztiaren ordainetan. Apa zuek eta apa ni!

Zabaldu da 2008ko atia. Oin dala gutxirarte kalia emoten ginuan urteko lehen gaba juergan! gaba horretan urtian zihar emoten ez diran patxo guztiak emoten dira, ez dozu uste? Ba aurten goizeko lauretan, artian, Etorri txanogorritxon ipuina kontatzen nenguan... sensasiño barrixak! Horrenbeste emozioekin umiak, “elek-triko” zeren! ta, geuk be, hola hasi dogu urtia... elek-triko!

Desio, asmo eta esperantzaz beteta hasten dogu urtia...Itxuraz borobil borobila dator 2008a. Zelakua izango ete da? Eibarren desioen zuhaitza jartzen dabe eta herritarrak beren desio eta asmoak kokatzen dittue bertan... ideia politta! Nik, nere asmo eta desioen arbolia barrenian daroiat. Badakizu nere asmuen arbolan ze jartzen daben? Eguna biziko dot, minutua, segundua, momentua...ahal bezain intentsuen une bakoitza magiko bihurtu arte. Desio dot nere bizitzako ekipua, ni kapitana, osasuntsu, pozik eta umoretsu egotia, danok alkarrekin barre pila bat egitteko...

Eta orain itxi begixak eta kontaidazu ze jartzen daben barrenian daroiazun asmo eta desioen arbola miragarri horretan... ☺

“

Osasuna da munduko loterixarik haundixena

Elene Alberdi

Eguna biziko dot, minutua, segundua, momentua...

Gurutze Ariznabarreta

”

Urte berri on Gurururu maittia! Hala da bai, emendau dira 2007ko argixak, egunotan hainbat etxetako balkoi eta leihoetan itsutu gaituztenak tartian...je,je! (hori broma da eh, inor ez dadila haserre!) Eta piztu dira dagoeneko 2008koak.

Urtero egiten dot asmo eta desiren zerrendatxoa ene buruko biltegitxoan. Tamalez, urtea hasi orduko hasi naiz kale egiten, ai, ai, ai! Super amatxo, zuk bezalako obligaziñorik ez dakat, baina hala ta be, urteko lehen gaba, familiarekin eta gero etxean, formal-formal, igarotzeko asmua neukan. Baina, azkenian, gurasoen etxetik etxera juteko bidian, galdu egin ginan.... katxis!

Bestalde, Egunotan be, esperantzaz beteta egoten naiz bai, loterixa tokatuko ete jakun pentsatzen: hipoteka ordaindu, bidaitxoren bat egin... Bai, badakit nahiko inuzentia naizela, baleee!

Hala ta be, barrenian daroiagun asmo eta esperantzaz betetako arbolan begiratuta, osasuna nahiko neuke guretzat Gururu, eta maite digutunentzat, familia eta lagunak ondoan izatia, irriparrria galdu barik. Danoi opa dotzuet ba, horixe baita munduko loterixarik handixena! Ondo esan dozun moduan, eguna segundoz segundo, minutuz minutu gozatzeko, une bakoitza magiko bihurtzeko eta gure barreneko argixak ia itsutu arte dir-dir egiteko, alajaina! etxeetako balkoi eta leihoetan jarri ohi diren argiek bezalaxe, je, je! ☺

Goguan hartzeko

Galdu arte ez dira ama eta osasuna akordatzen.

Esaera zaharra



**Etxebizitza = Negozioa****GUTUNAK**

Gazteoi, etxebizitza hitza entzutean, hori da burura etortzen zaiguna, **NEGOZIOA** eta eskubide urraketa. Hori da gaur egun sistema neoliberalak eta Espainiar eta Frantziar estatuek egiten dutena etxebizitzarekin, gutxi batzuen mesedeetarako eta probetxurako negozioa, gazteok prekarietatean bizitzera kondenatuz.

Etxebizitza, beraien helburu ekonomiko eta politikoetarako erabiltzen dute. Eskubidea ukatzen digute, baina guk argi dugu zeintzuk diren eskubide urraketa honen erantzuleak: Banketxeetatik hasita, Imobiliaria, Konstruktora, Promotora eta Administraziotaraino.

Espekulatzailerak! Hori dira guzti hauek, gazteon eskubideekin jolasten dutenak, pairatzen dugun miseriaren erantzule zuzenak eta pol-

tsikoak gazteon prekarietatearen kontura negozioa eginez diruz betetzen dituztenak. Baina argi izan dezatela gazteon eskubideekin ez dela jolasten, ez diegu gure kontura gehiago aberasten utziko, jakin dezatela pazientzia amaitu zaigula eta beraien negozioen garaia amaitzear dagoela, Gazteon eskubideak ez daude salgai. Espekulatzailerak egurra!

Honen baitan kokatu behar da. Soraluzeen konstruktoreen eta BOE-en (Babes Ofizialeko Etxebizitza) aurka margo gorri egindako ekimena. Gure eskubideak urratuz poltsikoak betetzen dituztenak eta etxebizitza eskubidea zozkatuz eskuak garbitzeko iruzurrak planteatzen dituztenak ere gazteon etsaiak dira.

SORALUZETAKO SEGI**Epa Euskaltzale!**

Pasa den Udalbatzan EAE-ANVren izenean EHE-ko Soraluzeko taldekideok mozio bat aurkeztu genuen abenduaren 19an Bilbon burutu behar zen epaiketarako salaketa jarrera bat aurkezteko. Epaiketa hartan 12 euskaltzale, tartean soraluzetar bat, epaitu zituzten hizkuntza eskubideak defendatzearen (Euskal Herrian euskaraz abestia abestearren hizkuntza eskubideak errespetatzen ez zituzten epaiketa batean).

Hau dela eta, EAE-ANV eta EA taldeek bat egin zuten eskaerarekin (azken honek puntuka bozkatzeko eskaera egin zuen ez baitzatorren bat 1.puntuarekin, non zuzendu zuen epaileen hautaketa Espainiakoen esku ere izaten dela). Baina PP, PSE eta EAJkoek ez zuten bat egin

eskaerarekin. PP eta PSEk beraien arrazoi espainiarrak eman zituzten, baina EAJk ez zuen arrazoirik eman, nahiz eta hala eskatu.

Zergatik, EAJko taldekideak? Zein arrazoi politiko daukazue?

Epaietan 12 euskaltzaleak eta begirale batzuk (Soraluzeko alkatea tartean) izan ziren. Epaiketa amaitzean, kanpoan (baina eraikin barruan) zeuden euskaltzale batzuk abestu, justiziaren euskararekiko jarrera zapaltzailea adierazi eta lemak bota zituzten. Honen aurrean sei ertzainek hanketatik tiraka eta lurretik tarrasean kaleratu zituzten.

Justizia euskalduna?? Non?? Epaiketa fartsarik ez! Justizian euskaraz orain!

Soraluzeko EHE**PIL-PILEAN****Pil-pilean Euskara Elkartearen BAZKIDEEN URTEKO BATZAR OROKORRA****GAIAK**

- 2007ko memoria eta balantze ekonomikoa.
- 2008ko egitasmoa eta aurrekontua.
- Galdera-erantzunak.

EGUNA Urtarrilaren 19a, zapatua.**ORDUA** 11:00etan.**TOKIA** Kiroldegiko erakusketa gelan.**PIL-PILEAN**

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkartea. Frontoi kalea 5. behe, PK 27 – 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** pilpilean@euskalnet.net **Erredakzio burua:** Arianne Unamuno **Erredakzio batzordea:** Enara Agirre, Jon Basauri, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Arianne Unamuno eta Maite Kintanilla **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Diseinua eta maketazioa:** Silvio Vaz **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 1.920 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-pilean Kultura Elkartek ez du bere gain hartzen aldirikariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.

**EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



SORALUZETAKO
UDALA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA



bittartetik



Unai Larreategi
Herriak bizirik!!

Herriak, haranak, izan dira historian zehar euskal kulturaren sorleku zein gordeleku naturalak. Harreman pertsonalak, ekonomikoak eraikitzeko gune naturalak. Gure hizkuntza herri txikien magalean, goxo eta xamur bizi izan da; euskalki ezberdinak adibide, oraindik euskara hutsez bizi diren herriak argibide.

Baina orain, "aurreratuagoak", "bizkorragoak", "abiadura zaleagoak" bihurtu gara. Euskal identitatearen oinarri izandakoa iraultzeko prest gaude mundu berrira egokitzeko. Herriak bizirik mantendu baino, nahiago dugu herriak txikitu hirietan bizi direnen mesedetan.

Horixe da globalizazioa. Kultura eta hizkuntza txikiak itotzeko tresna ezin hobea. Baina batzuei bost. Hizkuntza, kultura aberastasuna baino nahiago dute diru aberastasuna. Adibidez, Iberdrola bezalako "euskal" enpresak, Hego Amerika osoko txikizioan parte hartzen; Patagoniako Maputxe herriari lurrik lapurtzen, txikitzen, jatorrizko kultura bat heriotzara kondenatzen.

Baina zer espero behar dugu ba, bere herria ere saltzeko prest dagoenarekin? Inork ulertzen du zertarako behar dugun AHT-a?

Noiztik diharduzue futbolian?

Garazi: Nik hiru urte daroia-raz, Bergaran bat eta Eibarren bi.

Alana: Neretzat zazpigarren urtia da Eibarren; 10 urte nekazenetik nabil.

Ze moduz doia taldia?

G.: Oso gaizki. Entrenadoria aldatu da, gazte asko gare... Gainera neretako liga nazionalian lehenengo urtia da eta alde haundixa dago erregionaletik hona; jokalarixak, erritmo azkarragua... Esperientzia igartzen da.

Herrixan mutilen hiru talde dare. Ze pasatzen da neskekin?

G.: Hori galdetzen dogu guk! Talderik egin nahi dabenik ez dogu ikusten.

A.: Baina badago herrixanneskentaldia osatzeko beste jokalarari. Taldia behetik hasi bihar da; multikirola egitten hasten diran umiekin. Gero igoko dira mailaz.

G.: Guk multikiroletan jokatu genduan urte baten, baina gero desagertu egin zan eta ni eta beste asko Bergarara juan ginan.

A.: Baina norberan herrixan jokatzea gauza haundixa da. Sora ikustera juaten ginanian lehen, inbirixa haundixa emoten zoskun gure adineko muti-

((ENTZUTEKUAK))

Garazi Arizaga eta Alana Berraondo

Futboleko Liga Nazionalen jokatzan dute Eibar taldearekin



Garazi eta Alana, Eibar taldeko entrenamenduko kamisetarekin.

lak jolasten ikusi eta guk ezin ahal izatiak.

Orduan, ez dozue aukerarik izan herriko talde bat osatzeko be?

G.-A.: Ez da izan neskarik ez gendelako prest. Etxeberri komentau izan zotsagun. Beti esaten zoskuen zelai eta aldagela barrixak darenian orduan. Baina horrek ez dauka zer ikusirik. Gainera mutilak oso gaizki dabiz, eta lasai egon leikez, gu askoz txarrago ez gara ibiliko eta!

Nesken Super Liga jarraitzen dozue?

A.: Bai, partiduak emoten dittuenian telebis-tan ikusten dittut, baina oso ordu arraruetan izaten dira. Ez da mutilen ligia moduan. Profesionalak dira baina...

G.: Ez dabe berdina kobratzen. Ezin dira hortatik bizi.

A.: Mutileri, Nazionalari ordaindu egitten dotse eta guri, nesken mailan goren garenori, ez. Ez dazkau aukera berdinarik. ☺

Herrixan badago nesken taldea sortzeko beste jokalarari

Etxabe Harategia



Euskal txabalkia Bildotsa

Merkatu Plaza 6-7 Postuak Telef. 943752375



HNOS. BENITO ANAIK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)


Hildako bat eragin du herrian izandako auto istripu batek

Abenduaren 30eko gauean bi autok elkar jo zuten Soraluze eta Maltzaga bitarte-

ko errepidean, Embalajes Anso-la enpresaren inguruan, eta ondorioz, ibilgailuetako bat ibaira jausi eta barnean zihohan gidaria hil egin zen, 29 urteko mutil gazte azkoitiarra. Suhiltzaileek atara behar izan zuten gorpua ibaira eroritako ibilgailutik. Beste bost zauritu izan ziren eta erietxera eraman zituzten.

Abenduan, hiru hildako

Hiru hildako gertatu dira denbora gutxian eta toki ia berean Soraluzen. Aste pare bat lehenago beste auto istripu bat gertatu zen inguru berean eta bi hildako eta zaurituak eragin zituen. ☺



Trafikoan aldaketak izan dira berriz

Gabonetan normaltasuna izan bazen herriko kaleetan ibilgailuen tzat, Zubi Nagusiko eta Errabal kaleko obregatik berriz itxita daude Errabal, Atxuri eta Zubi Nagusia. Autobusak Estazioko geltokian hartuko dira.

2007an 44 ume jaiotz dira

Azken urteetako jaiotza kopururik handiena izan da 2007an, 44 ume jaiota, bake epaitegiko datuen arabera. Pasa den urtera arte 2004 urtea izan zen azken urteetako beharakada hautsi zuena, 44 jaiotzarekin, eta 2007an kopurua berdindu egin da.

PER proiektua definitiboki onartu da

Soraluzeko hiri gunea birgaitze integratuko area gisa deklaratzeari buruzkoa agindua 2007ko abenduaren 21ean eman zuen Eusko Jurlaritzak eta aste honetan argitaratu da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Horrek esan nahi du herriko alde zaharri nabarmen eragingo liokeen PER proiektua definitiboki onartu dela. Udalak jakinarazi duenez, proiektua gauzatu ez dadin bideak ikertzen dihardu.

Errealeko presidentea Soraluzen

Iñaki Badiola, Erreala futbol taldeko presidentea hitzaldia eman zuen herrian bere asmoen berri emateko. Udaletxeko Batzar aretoan, txinatarren eta fitxaje berrien kontuez jardun zuen 50 lagun ingururen aurrean.



ARRANO

tabernia

etorri eta gozatu giro euskalduna eta sanua

IÑAKI IÑARRA

HARATEGI ETA URDATEGIA

Kalebarren 29
Tfnoa 943 75 12 49
Soraluze

SAN ANDRES

ITURGINTZA

Iturgintza, Gasa, eta Berogailuak

Sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea
Tfnoa 943 75 16 46

MENDIZABAL

okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91

Baltegieta 6
T. 943 75 13 99

SORALUZE



1 Baltasar Errege Magoaren altzotik adin guztietako umeak pasa ziren.

2 Olentzero eta Mari Domingik banatu zituzten gabonetako lehen opariak.

3 Errege Magoen bizarrak ume bat baino gehiago izutu zituen.

4 Urteko azken egunean, San Sivestre krosa egin zen, ume eta nagusiekin.

5 Musika Eskolak kontzertu arrakastatsua eman zuen Elizan.

6 Gaztetxoak Txuri Urdinera patinatzera egindako irteeran.



Kontulan Aholkularitza S.L.
 Enpresa aholkularitza
 Jabe Elkarteak
 Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
 Telefonoa: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Soraluze
 GIPUZKOA

Juan Mari Arraindegia
 Eguneroko arraina eta konjelatuak

Merkatu Plaza
 20590 Soraluze
 Tfnoa 943 75 24 40
 Partikularra 943 74 03 69



Jose Luis Arizaga “Txipi”

SORALUZeko ALKATEA



“Aurrekontuak onartzeko zailtasunak izango dittugula aurreikusten dogu”

2007ko ekainean hartu zuen Jose Luis Arizagak, “Txipi”k, alkate kargua. Harrezkero ikasiak ditu alkate baten egin beharrak; bere esanetan, herritarren kezkek entzun eta irtenbidea ematea da bere lana. EAE-ANV alderdiak hauteskundeetan lehenengo indarra izatea lortu zuen eta EAekin osatu zuen Udal Gobernu Taldea. Orain arteko eta etorkizuneko gorabeheren berri eman digu.

Zertan aldatu da zure bizimodua alkate zarenetik?

Gutxi. Lehen etxeko lanetan murgiltzen nintzan eta oin hemen pasatzen dot goiza. Baina pozik. Gustora nao hemen. Ardura bat da, baina momentuz ardura konpartitu bat da, taldian lan egitten dogulako.

Zelakua da alkate lana?

Ni saiatzen naiz ahal dan herritar guztiekin egoten, danen kezkek entzuten eta ahal diraneri irtenbidia emoten. Atiak zabalik egongo dira egunero, beti.

Zela egokitu zinan alkate lanera?

Heldu ginanian ez genduan laguntza politikorik izan. Ez da ulergarria gizatasun ez hori. Baina eskertu nahi neuke Udal langiliak gurekin izan daben jarrera eta jaso dogun laguntza, nik pertsonalki eta Udal gobernu taldeak orokorrian. Gaur egun sin-

tonia politta daukagu, eta hori danondako ona da, elkarlanian dihardugulako.

Zer aldaketak ekarri dau ezker abertzaliak Udalera?

Hori herritarrak esango dabe. Gonbidapena luzatzen dotsagu jentiarri parte hartu deiken Guk uste dogu hau danen artian etara bihar dala aurrera. Gurekin lanian ez daguana da ez dabelako nahi izan.

EAKin osatu zenduten Udal Gobernuak. Ze moduz moldatzen zarie?

Oso harreman ona daukagu. Hasieratik programa politikuak nahiko antzerakuak ziran. Gure artian oso ondo konpontzen gara eta danok gare lanerako gogoz.

Udal langiliak gurekin izan daben jarrera eta emondako laguntza eskertu nahi neuke

Espero dot etorkizunian be hala izatia.

Eta oposiziñuak ze harreman dakazue?

Batzuena ulergarria da hainbeste urtian kudeatzen egon eta gero, hartu daben disgustua. Baina konturatu bihar dira jarrera horrekin ez doskuela guri kalte egitten, herrixari baizik. Uste genduan Udal aldaketa naturalagua izango zala, herrixan onerako. Baina zoritxarrez ez da egon. Eta hori herritar danak ordaintzen dabe. Gure lana oztopatzen, zeoze zabalagua oztopatzen dihardue. Gehixago arduratzen dira ANV udaletxetik kentzetik, herrixan etorkizunaz baino. Liberaziñuan kontuakin argi ikusi da.

Hasieratik prest egon ginan lanak banatzeko, 11 batzorde 11 zi-

**Lan
egin nahi
ez dabenak, ez
deixela lan egin
nahi dogunon
bidia oztopatu**

negotzi. Lan egitten ez dabenak, ez dabelako nahi izango da. Baina ez deixela lan egin nahi dogunon bidia oztopatu.

Zinegotzi bat liberatzia proposatu zeduten Udal Gobernutik eta oposiziñuak atzera bota zeban. Zein da zure iritzia?

Aplikatzan diharduen blokeo eta asfisia politikaren ondorixua dala uste dot. Berek planteatzen dabe Soralezeko Udalak ez daukala bi liberatzen biharrik, baina gaur egun, ez dauka liberatu bakarra be (alkateak ez du Udaletik soldatarik jasotzen). Hori ez da serixua. Aurreko legealdiko EAJko bi liberatuak bixen artian urtian 90.000 euro kobratzen zittuen. Guk bakarra proposatzen dogu, 33.000 eurotakua. Alde haundixa dago. 57.000 euroko diferentzia hori aurrekontuetan eta herrixan gastatzeko izango litzake. Onartu ezian, EAK eta ANVk herri programan proposatutako gauza asko zoritxarrez ezingo dira aurrera eruan: Kiroldegiko kudeaketa zuzena, berdintasun plana Udaletxetik kaleratzia, Izartu plana bideratzia, gobernu taldian eta langilien arteko koordinaziñua...

Aurreko legealdixan onartu ziran proiektu batzuekin desadostasunak azaldu zenduezen (PER, Erregetxeko aparkaleku pribatuak...). Zer gertatuko da horrek?

Buelta emateko lanian dihardugu. PERa behin betiko aprobatuta dago baina oin ikertzen gabiz horri buelta zela emon jakiteko. Sistema desberdinak dare. Plan Orokor bat ipiniko dogu abian, arau subsidiarixuak berritzeko, eta ia horren bittartez lortzen dogun. Aparkalekuekin be martxan gabiz, baina guk ez dogu lurzorua salduko. Autofinanziaziañuan bittartez egittia da gure asmua.

Zer eskatzen dotsu jentia kalian?

Danetik. Eskaera normal eta naturalak izaten dira. Gaur, adibidez, kumun publikuak zikinak darella eta argi bare darella esan doste eta ondo ipintzeko eskatu doste. Eta oin hilabete pare bat

eindako eskaeriari erantzunaz, Estaziño kaleko espaloia moldatzen hasi dira gaur. Eskertzen dogu jentia egitten dittuan ekarpenak, eguneratu eitten gaittue eta. Plaentzia.com moduko guniak barometruak dira guretzat.

Azuekin be bilerak eitten hasi gara, lehenengo Sagar Errekakuekin, eta adostu doguz konponketa batzuk (bidia, espaloia... konpontzia). Egutegi bat egingo dogu azuekin bildu eta lotura zuzenago bat izateko, biharrik eta kezak azaltzeko.

Aurrekontuak onartu biharra dator laster. Aurrera ateratzeko esperantzarik bai?

Datorren astian zirriborrua pasatuko dotsegu talde daneri, Ogasuneko lehenengo bileran, eta nik uste dot martxuan onartuko dirala, edo saiakera egingo dogu behintzat. Zailtasunak izango dittugula aurreikusten dogu, oin arteko jarrerak ikusitta.

Zelako aurrekontuak izango dira?

Guk asmo pila bat dittugu, eta mila gauza buruan, baina errealitatia ikusita, zenbat diru jasoko dogun... Futbol zelaixa, zinia, gaztelekua, kultur etxia... aurten ezingo dogu gauza haundirik egin. Baina kreditua eskatzia nahi dogu uztailian, oingo zorpen maila mantenduz, eta horrek aurrera eruateko aukeria izango da.

EAE-ANVren ilegalizaziñuaz berba egitten da prentsan. Zer ondorio izan leikez horrek?

Emoten dabenez, kautelazko etendura deitzen dana laster etorriko da, hauteskundiak datoz eta. Baina herri mailan, guk izena aldatu biharko genduken arren, ez gendukez postuak galduko, ez alkatetza ez zinegotzirik. Karguak mantendu egitten dira. Baina eragina eduki leike, EAJk zentsura-moziñua aurkezten badau. Hautagai bat ipiniko leukie, indarkeria gaitzetzten ez dogula argudioztzat hartuta, eta PSE eta PPn babesa izango leukie. Orduan, kudeaketa galduko genduke. ☺

**Eskertzen
dogu jentia
egitten dittuan
ekarpenak,
eguneratu eitten
gaittue eta**



Zirt edo zart

Jose Luis ala Txipi? Txipi
Agintian ala oposiziñuan? Bihar dan tokixan
Alkate ala zinegotzi? Alkate gustora
Udaletxian ala kalian? Kalian

ZER TRISTEN DOTSAZU?

Ze eskaera eta promesa egin dotsazuz urte barrixari?

Urte berria hastearekin batera, asmo berriak eta proiektu berriak izaten dituzte batzuk. Betiko bizimoduak iraun dezan eskatzen dute beste batzuk.

EIDER VARELA
Irakaslea



Eskatu, lanian ia zortia dakaten eta deitzen dosten, eta ia etxebizitzaren bat begiratzeko aukeria daukagun, egoeria ez da erreza eta. Eta osasuna be bai, noski. Karreria aurtentaratzea da nere buruari egingako promesia.

AINHOA VELAZQUEZ
Jangelako langilea



Danok ondo bukatzia urtia berriro, osasuna danondako eta diru pixkat gehixago, ondo egongo zan. Horrekin nahikua. Inolako asmo berezirik ez daukat, planak gaizki urtetzen jataz eta.

ABEL OLAIZOLA
Langilea




Mundu guztiandako mbakia eta lasaittasuna eskatzen dotsaraz, nahiko astoratuta gabiz danok eta ia pixkat baretzengaran. Hartutako konpromisuak bete eta egunian-egunian zuzenagua izatia da nere asmua.

MARI TERE ARIZAGA
Etxekoandrea



Osasuna eta bakia izan deila, neretako eta inguruko danendako. Hobia izatia da nere promesa bakarra, besterik ez dot egin, gero ez doguz betetzen eta.

KOMIKIXA



Karta enkarguz,
jaunartzeak
eta bataioak

EDURTZA Kafetegia
Taberna eta jatetxe zerbitzua

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze

Javier Alonso Zelaia
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K. Z. 20.000.434

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 • Tel. 943 75 16 13

Darling Shoes taldea
E-gazteko maketa lehiaketan

**Darling
Shoes**

Lau soraluzetar neskek osatzen duten musika taldeak beren abesti propioekin maketa bat kaleratu du. Euskadi gazteak antolatzen duen maketa lehiaketan eta Bilbo Hiria Pop-Rock lehiaketara aurkeztu dute beren lana. Entzungai dago helbide honetan: <http://www.gaztea.com/mareagaztea/artist/darling-shoes/>

Ventos de Saudade fado taldea Coliseoan

Urtarrilaren 27an fado emaldia eskainiko du Ventos de Saudade taldeak Eibarko Coliseoan. Kontzertua iluntziko 19:00etan izango da. Sarrerak eskuragarri izango dira lehiatilan martitzenetan 20:00etatik aurrera, eta egunean bertan, ordubete lehenago. Servikutxa telekutzaren bitartez ere lortu daitezke (943 001 200 edo www.kutxa.net).



Luis Llavori zumaiarrak irabazi du Kontrargiren argazki rallya

Gabon aurretik egin zuen XIX. Argazki Rallyko sari banaketa Kontrargi Argazki Kolektiboak. Luis Llavori zumaiarrarentzat izan zen lehenengo saria, 90 eurokoa. Mikel Zengotita azkoi-tiarrak irabazi zuen bigarren saria, 70 eurokoa, eta Fernando Oregi soraluzetarrak hirugarren lekua lortu zuen. Mikel Cruz he-

rritarrari egokitu zitzaion argazkilarari onenaren saria.

Sari banaketaren aurretik, diapositibatan erakutsi zituzten parte hartzaileen argazkiak. Salaketa izan zen rallyko gaietako bat, eta horien artean, industrialdeko enpresa biren artean dagoen zabor pila baten argazkia izan zen aipagarriena.

Irudian argazki rallyko saridunak



I. San Blas Opilen Lehiaketa antolatuko da aurten

Soraluzen egun berezia izaten da San Blas eguna, eta herritarrek opilak egiteko duten ohitura aprobetxatuz, lehiaketa egitea erabaki du Udaleko Kultura Batzordeak datorren otsailaren 3an. 100, 50 eta 25 euroko sariak banatuko dira. Lehiaketa eguadiako 12etan egingo da Plaza Barrixan (euria bada, elizpean). 15 parte hartzailetan ipini dute muga eta derrigorrezkoa da opilak etxean egindakoak izatea.

Izena emateko aukera bi daude: Udaletxera jo edo egunean bertan apuntatu.



GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

**Gosarixak eta
pintxo
goxo goxuak !!**

Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34



KM
Desing

Diseinua eta Sormena

Poligono Amillaga, nº 5

Tlf.: 943 76 99 85

20570 **BERGARA** (Gipuzkoa)

Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

Laskurainen lagunartea urtarrilaren 26an aurkeztuko da



Eguerdiko 12etan Udaletxeko pleno aretoan izango da Aritz Laskurainen Lagunartean aurkezpena. Taldeak dituen asmoen berri eman eta lanean parte hartu nahi dutenei zuzendaritzan sartzeko deia egingo die. Karnetak eta kamisetak banatuko zaizkie kuota ordaindu duten bazkideei.

Izena emateko

Hiru aukera daude Lagunarteko kide izateko: 635707232 telefonoa, aritzlaskurainenlagunartea@gmail.com helbidea edo Edurtza tabernan apuntatzea.

Eskuz binakako txapelketan

Aritz Laskurainek eskuz binakako txapelketa jokatu du, Titin III.a bikote hartuta. Final laurdenetako lehenengo partidua irabazi egin dute Olaizola II eta Otxandorenaren aurka eta hurrengoia Koka eta Beginoren kontra jokatu dute.

EMAITZAK

PILOTA

Titin III - Laskurain 22
Capellán - Pascual 16

Del Rey - Eulate 19
Uriarte - Laskurain 22

Olaizola II - Otxandorena 11
Titin III - Laskurain 22

Mendizabal - Jauregi 22
Renobales - Garmendia 16

FUTBOLA

Sora 3 - Mutriku 1 (Erreg.)
Sora 1 - Ikasberri 5 (Jub.)
Arizmendi 4 - Sora 2 (Kad.)

AGENDA

PILOTA

Barixakua 11, 22:00etan Irunen
Titin III - Laskurain
Koka - Begino

FUTBOLA

Zapatua 12, 15:30ean Ezozin
Sora - Martutene (Erreg.)

Zapatua 12, 11:30ean Ezozin
Sora - Ikasberri (Kad.)

Jauregik DV txapelketa irabazi du

Mendizabal antzuolarra bikote hartuta, Diario Vasco Txapelketan garaipena lortu zuen Iñaki Jauregi pilotariak. Horrez gain, senior mailako finaleko pilotari onenaren saria ere jaso zuen.

Jauregi eta Mendizabalek 22-16 irabazi zioten Renobales-Garmendia bikoteari, Zarauzko

Aritzatalde pilotalekuan jokatutako partiduan. Soralezeko hamarnaka pilotazale batu zen bertara.

Duela bi urte finalean izan zen orain profesionala den Olazabalekin, baina ez zuen irabaztea lortu. Aurten Elgetako lau t'erdiko txapelketako irabazlea izan da.



I. Jauregi

MABE
ILEAPAINDEGIA

ESTETIKA
SOLARIUM

Errabal kalea 1, behea
Tel.: 943 75 14 89
20590 SORALUZE

GAZTELUPE
taberna

tel: 943 75 20 81

JATETXEA
TXURRUKA


SAN IGNACIO AUZOA - TEL. 75 15 81 - SORALUZE

PASCUAL CHURRUCa, s.a.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxe 943752461
E-mail: general@pascualchurruca.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE

ZORION AGURRAK



Btisan Elkanouni

Abenduan 26xan 8 urte Zorionak!
Zuhaitz, Josuf, Asun eta Emilitaren partez.




Hanane El Fellah

Abenduan 26xan Zorionak!
Btisan, Asun eta Emilitan partez.




Hodei Valdivieso Argarate

Urtarrilan 9xan 4 urte Zorionak!
Etxekoen partez



Iker de los Santos Perez

Urtarrilan 2xan urtebete Zorionak!
Familiaren eta bereziki zure arreba Iraiaren partetik.



Goizane Plata

Urtarrilan 13an 5 urte Zorionak guapa!
Etxekuen partez

jaiotakoak

EKI AMUATEGI ARIZNABARRETA
UNAI SIERRA SUAÑEZ



hildakoak

DIONISIA SEGUROTA EPELDE
MANUEL HERNANDEZ MOSTAZO
SARA LETE LAKUESTA



IRAGARKIAK

Lanpostua

Begarako Agorrosin igerilekuan tenis irakasle bat eta igeriketako irakasle bat (0-3 urtekoentzat) behar dira. Ez da titulurik behar. Interesatuak deitu **615 76 23 19** zenbakira (Mikel).



JUAN ANTONIO AXPE LIZARRALDE

2007KO ABENDUAREN 9AN
HIL ZEN 58 URTE ZITUELA
GOIAN BEGO

Familiak bihotzez eskertzen dizuegu egun hauetan gure dolian laguntza eta elkartasuna eman diguzuen guztiei, bereziki, Dantza Taldearen inguruan jardun duzuenoi.

LEHIAKETA

AURREKO ALEKO ERANTZUNA

► Zertarako izaten zian eskirola eta abutsa?

- 1- Arrantzan egiteko
- 2- Futbolian jokatzeko
- 3- Josteko

► **Saria:** Fisioterapia saio bat **GOGORTUZ** zentroan

► **Irabazlea:** ez da parte hartzailerik izan.

► **Gabon gabonete...**

Andres Ezenarron idatzixetatik etaratako kantua da. Soraluzeko orduko bizimodua agerixan ipintzen zittuen bertso asko idatzi zittuan. Gabon kanta zaharrenetarikua da gure herrixan.

deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu pilpilean@euskalnet.net

ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: Santos Elizburu

BATALLUA EDURRETAN

1956ko otsailan 20xan batailatu zeben Sabin Elizburu, eta hemen ageri da bere familia osua Iturburu kalia, batailatu berrixa amaren besuetan daguala.

- 1- Juanito Elizburu
- 2- Javier Elizburu
- 3- Sabin Elizburu
- 4- Santos Elizburu
- 5- Juan Antonio Elizburu
- 6- Bixente Muniozguren
- 7- Pantaleona Oregi
- 8- Antoni Muniozguren
- 9- Begoña Basauri 🇪🇺



SARA LETE LAKUESTA

2008KO URTARRILAREN 6AN HIL ZEN,
51 URTE ZITUELA
GOIAN BEGO

ESKERTZA

Sendiaren partetik eskerrak eman nahi dizkiegu herritar guztiei jaso dugun elkartasun, maitasun eta laguntzagatik. Sara, betiko egongo zara gure bihotzean.



SARA LETE LAKUESTA

2008KO URTARRILAREN 6AN HIL ZEN,
51 URTE ZITUELA
GOIAN BEGO

Bihotzean izango zaitugu beti, Sara. Maite zaituzten lankide eta lagunen izenean besarkada bat senide guztiei.